



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Javier Povedano baritono eta klarinete jotzaileak jazarritako konpositoreen musika interpretatuko du

- Rubén Fdez. Aguirre piano-joleak lagunduko du bihar, otsailak 14, asteazkena, Arriaga Antzokiko foyerrean LIED ARRIAGAN zikloaren barruan egingo den emanaldian.

**Bilbo, 2024ko otsailaren 13a.-** Arriaga Antzokiko foyerrak bihar, otsailak 14, asteazkena, LIED ARRIAGAN zikloaren barruan denboraldi honetan programatutako bost kontzertuetatik bigarrena hartuko du. 19:30etik aurrera, **Javier Povedano** baritono eta klarinete jotzailea **Rubén Fdez Aguirrek** pianoan lagunduta ariko da. Kontzertu honetan, jazarrak izan ziren konpositoreen musika entzuteko aukera izango du publikoak, bi musika-tresnen adierazpenaren bidez, malenkonia eta umorea tarteko.

Emanaldian eskainiko diren lanen artean dago Chevalier de Saint-Georgesek XVIII. mendean egindako aria. Musikagile hura baztertu egin zuten, beltza zelako. Era berean, nazismoaren jazarpena pairatu zuten Hindemith, Martinu eta Horovitz musikagileen lanak interpretatuko dituzte Povedanok eta Fdez. Aguirrek, hizkuntza neoklasikoa ezaugarri duten ganbera-musikako sonatak, hain zuzen. Horiez gain, Ullmann, Milhaud eta Zeisl konpositoreen lieder-zikloak izango dira entzungai, eta Olivier Messiaenek kontzentrazio-esparru batean idatzitako klarinete bakarlarientzako lana ere bai, amildegitik txorien kantuari eskainitakoa.

Klarinetearen eta ahotsaren interpretazioa ez da kasualitatea (nahiz eta kasu honetan pianoaren presentziarekin ere indartzen den). Klarinetearen eta ahotsaren arteko lotura aintzinetik dator, instrumentu horiek elkarrekin beti izan dute beren tokia, ez bakarrik musika klasiko landuan, baita musika herrikoian ere. Oso lotuta egon dira beti herriak ospakizunetan zein une mingarrietan sentitu ohi duen adierazteko premiarekin.

### **Lied Arriagan zikloa**

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloaren bigarren edizioa antolatu du 2024ko urtarrila eta ekaina bitartean, iaz lehen edizioan ikusleek hain harrera ona egin ondoren. Naroa Intxaustik eta Aurelio Viribayk eman zioten hasiera zikloari urtarrilaren 24an eta biharko emanaldia, Javier Povedanoren eta Rubén Fdez. Aguirreren eskuetatik datorrena, bigarrena izango da. Bi hilabete barru, apirilaren 10ean, Fdez. Aguirreren teklek beste ahots bati lagunduko diote, Carmen Artaza mezzosopranoaren ahotsari, hain zuzen. Maiatzean, hilaren 8an, Adriana Viñuela sopranoaren eta Elisa Rapado pianistaren txanda izango da. Azkenik, Lied Arriagan zikloari amaiera emateko, Miren Urbieta sopranoak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak Sebastián Iradierren eta Jesús Guridiren konposizio ateporalak arakatuko dituzte. Ekainaren 12an izango da.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 15 euro (beherapenekin)

- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)